

BERRIOBEITIKO UDALEKO 47. ORDENANTZA, KIROL EREMUEK ETA PILOTALEKUEK ERABILERA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. Berriobeitiko Udaleko kirol eremuak eta pilotalekuak jabari publikoko ondasunak dira, kirol, kultura eta gizarte arloetako xedeetarako bereziki zuzendutakoak.

2. artikulua. Ordenantza honek xedea du arau multzo bat ematea, Berriobeitiko Udaleko kirol eremuetan eta pilotalekuetan egiten diren kirol, kultura, gizarte eta josteta arloetako jarduerak planifikatzeko, onura hauek lortzeko:

a) Instalazioak modu arrazoizkoan eta ordenatua erabiltzea, herritar guztiek haiek erabiltzeko aukera berak izan ditzaten.

b) Eskura dauden giza baliabideak zein baliabide materialak erabat aprobetxatzea.

3. artikulua. Jarduera edonolako dela ere, Berriobeitiko Udalak beti egingen ditu esku-hartze administratiboa, kontrola eta zainketa, baita agintaritzari dagozkion eginkizun guztiak ere, baldin eta bere eskumenekoak badira.

4. artikulua. Udalaren Osoko Bilkurari honako hauek dagozkio:

a) Ordenantza hau onetsi, aldatu edo indargabetzea.

b) Udalerrian kirol jarduerak sustatzea, egiten diren ahalegin eta ekimen guztiak ikuspegi zabal batekin koordinatuz, beste erakunde batzuei dagozkien eskumenak deusetan ukatu gabe.

c) Eskolako kirola eta kirol amateur bideratzea eta sustatzea.

d) Zehaztea urtero behar diren kredituak, inbertsio planetatik sortutako betebeharrak eta instalazioen gastu arrunten aurre egiteko.

e) Finkatzea haiek erabiltzeko prezio publikoak eta tasak.

f) Nafarroako Gobernuari, korporazio publikoei, enpresa pribatuei eta partikularrei dirulaguntzak eta bestelako laguntzak eskatzea eta haiek emandakoak onartzea.

g) Ordenantza hau interpretatzea eta sortzen diren zalantzak ebaztea.

5. artikulua. Alkateari edo hark eskuordetzen duenari honako hauek dagozkio:

a) Instalazioak zuzentzea eta zaintzea eta bertako zerbitzuak antolatzea.

b) Instalazioen erabilera koordinatzea, baita kirol eta kultura jardueren programak ere, eta instalazioak erabiltzeko baimenak ematea, bai kirol entitatei bai kultura edota eskola arlokoiei eta entitate sozialei.

c) Instalazioak erabiltzeko ordutegia eta oporrak edo konponketak direla-eta egiten diren itxialdiak finkatzea, arazoak emanez. Bandoen bidez jakinaraziko da hori guztia, deusetan ukatu gabe ohiko erabiltzaileei banan banan jakinarazpena egitea.

d) Gastuak xedatzea, bere eskumenen eta aurrekontuetan onartu diren kredituen barrenean.

e) Legez ezartzen diren tasak eta prezio publikoak jasotzeko baimena ematea.

f) Jarduerak ikuskatzea, ordenantza honen aurkako arau-hausteak zehatuz.

g) Legeetan espresuki zehazten diren gainerakoak eta, Udalari esleituak izanda ere, Osoko Bilkurari espresuki esleitzen ez zaizkionak.

Ikusleen eskubideak eta betebeharrak

6. artikulua. Sarrera doakoa izanen da instalazioetan antolatzen diren kirol, kultura eta gizarte arloetako ekitaldietarako.

Jarduketarik egin nahi bada sarrera ordainduta, Alkatetzaren alde zurretiko baimen espresua eta idatzia beharko da.

7. artikulua. Ezin da animaliarik esparruan sartu. Itsu-txakurrak sar daitezke, behar bezala identifikatuta badaude, beren lana egiteko bada eta higie eta osasungarritasun baldintzak betetzen badituzte.

Instalazioetako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

8. artikulua. Erabiltzaileek eskubidea dute instalazioak erabiltzeko, haien izaera, baimendutako jarduerak, federazio arauak eta ordenantza honek erabilera horri buruz ezarritako arauak kontuan izanik.

9. artikulua. Erabiltzaile orok eskubidea du egoki iruditzen zaizkion erreklamazio eta iradokizunak egiteko, arduradunari edo, idatziz, Alkatetzari.

10. artikulua. Instalazioak kirola eta, salbuespen moduan, beste jardueraren bat egiteko erabiltzen dituzten entitateak, eskolak eta elkarteak, honela sailkatzen dira:

–Ohikoak: denboraldiko jarduna programatua dutenez, instalazioak aldizka edo sarri erabiltzen dituztenak.

–Noizbehinkakoak: instalazioak noizean behin edo modu puntualean erabiltzen dituztenak.

11. artikulua. Instalazioetako ondasun higigarri eta higiezin guztiak errespetatzeko konpromisoa hartzen dute erabiltzaileek. Ondasun horietan egin kalteak egileak berak edo haren legezko ordezkariak ordainduko ditu. Udalak auzibidera jo dezake kalteak eta balizko kalte-ordainak erreklamatzeko.

Erabiltzaileek erabiltzen duten materiala jarri eta jaso beharko dute, eta instalazioak aurkitu bezala utzi beharko dituzte.

12. artikulua. Instalaziotik ateratzeko aginduko zaie ordenantza honetako arauen aurkako jokabidea duten erabiltzaileei zein ikusleei, edo une horretan instalazioan dauden pertsona edo gauzak errespetatzen ez dituztenei.

Jardueren baimenak edo koordinazioa

13. artikulua. Kirol instalazioak erabiltzeko ordutegia 9:00etatik 22:00etara izanen da, astelehenetik igandera bitarte. Instalazio bakoitzak bestelako ordutegi bat zehaztu dezake, barne erregelamenduan, baina ordutegi horrek ezin du aipatu ordu-tartea gainditu. Debebatuta dago instalazioak erabiltzea erregelamendu berariazkoek ezartzen dituzten ordutegietatik kanpo, salbu eta Udalak baimentzen badu.

14. artikulua. Alkateak alde zurretik eta idatziz emandako baimena beharko da ohiko eta noizbehinkako erreserbetarako. Baimena ezin da izan urtebete baino gehiagorako, bidezko diren berritzeak deusetan ukatu gabe.

Denboraldiaren hasieran, baimena eskatzearekin batera, kirol, kultura eta eskola arloetako entitateek edo klubek idatziz jakinaraziko diote Udalari, betiere hamabost egun lehenagotik, ekitaldi, entrenamendu edo entseguen egutegia, jarduerak koordinatzeko, instalazioak modu arrazoizkoan eta ordenatuan erabiltzearen eta horiek hobeki aprobetxatu eta kontrolatzearen. Bertan zehaztuko dituzte egunak, ordutegia eta egin nahi duten kirol edo jardueraren mota.

Elkarte izaera ez duten taldeek noizbehinkako erreserbak edo erreserba puntualak besterik ezin dituzte egin.

15. artikulua. Egundak ordutegi bereko jardueren kasuetan, entitateetako arduradunei dei egingen die alkateak, gertatutako arazoari konponbidea emateko. Interesdunei entzun eta gero, alkateari dagokio, azken finean, jarduketak ebatzi eta baimentzea.

16. artikulua. Udalak berak antolatzen dituen jarduerak lehentasuna izanen dute gainerako jardueren eta entitateen aurrean. Lehentasuna izanen dute, halaber, kirol eta kultura arloetako udalerriko entitate, elkarte edo klubek.

17. artikulua. Udalaren baimena jasotzen duten jardueren ordutegiak ezarri ondoren, gainerako orduak Berriobeitiko bizilagunek libreki erabiltzeko gelditzen dira. Kasu horietan ez dute Udalaren baimena nahitaez eskatu behar.

18. artikulua. Jende talde bakoitzak gehienez ordubetez erabil dezake, salbu eta Udalak gehiagorako baimentzen badu. Halako jarduera zehatz baterako erabiltzeko aurreikusi eta baimendutako epea iraganda, erabiltzaileek pista utzi beharko dute, ondotik beste jarduerarik bada edo beste jende talde bat zain badago.

19. artikulua. Instalazioa zonaldeka banatuta baldin badago, jarduera desberdinak aldi berean egiten daitezke. Nolanahi ere, sen onak aginduko du, denok disfrutatzen.

20. artikulua. Kasu berezietan, alkateak badu eskubidea erabiltzeko baimena baliorik gabe uzteko, ordu tarte batean edo gehiagotan, eskaera berezi bati erantzun behar bazaio edo Udalak edo instalazioa hartzen duen kontzejua antolatutako ekitaldiak baldin badira. Nolanahi ere, ukituek horren berri izanen dute, gutxienez 10 egun lehenagotik eta, posible bada, erabiltzeko baimena beste egun edo ordu batera aldatuko da.

21. artikulua. Instalazioak erabiltzeko baimena izateko, tasa edo prezio publikoa ordainduko da aldez aurretik, Udaltzatzen hala irizten badi.

Baimena lortu ondoren, instalazioak ez erabilia ere, tasa edo prezio publikoa ordaindu egin beharko da, deusetan ukatu gabe baimena kentzea, erreserbatutako orduetan behin eta berriz ez erabiltzeagatik.

Prezioak urtero argitaratuko dira Udaltzen web-orrian.

Instalazioetako mantentze-lanak eta zaintzea

22. artikulua. Berribeiteko Udalak instalazioak zainduko ditu eta segurtasunari eta osasungarritasunari lotutako baldintzak bermatuko ditu.

23. artikulua. Instalazioetako arduradunek ematen dituzten jarraibideak eta arauak bete behar dira, beti.

Udaltzen bulegoetan jakinaraziko dira atzematen diren anomaliak edo kalteak, baita jardueretan era normalean arituta egiten direnak ere.

24. artikulua. Instalazioetan publizitate finkoa ezartzeko, mezua gauzatzeko edozein euskarri erabiltzen dela ere, aldez aurretik baimena lortu eta dagokion tasa edo prezio publikoa ordaindu behar da.

Ezin da instalazioen kanpoko parametroetan publizitate finkoa ezarri, ez eta publizitate edozein euskarri ere, duen forma, kolore, marrazki edo hitzengatik bertako seinaleekin nahas badaiteke, ikustea eragotz badezake edo ikusleen nahiz erabiltzaileen segurtasunari kalte egin badiezaioke.

Arau-hauste eta zehapenak

25. artikulua. Berribeiteko Udaleko Alkatetzari dagokio erabiltzaileentzako zehapen neurriak hartzea, erregelamendu hau betetzeko eta instalazioaren barreneko udal ondasunak zaintzeko.

26. artikulua. Arau-haustetzat hartuko da ordenantza honetan jasotako arauak ez betetzea ekar dezakeen edozein egintza, eta apartatu honetan aurreikusitako zehapenak jartzea dauka berekin.

Arau-haustek arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

27. artikulua. Honako hauek dira arau-hauste arinak:

1. Kirol eremu bakoitzaren berriazko araudia ez errespetatzea.
2. Kirol instalazioak erabiltzea erreserbako egun eta/edo orduetatik kanpo.
3. Berriaz debekaturiko eremuetan jan-edatekoak edo beirazko ontziak sartzea.
4. Araudi honetan ezarritako arauetako edozein ez betetzea, salbu berriaz falta astuntzat edo oso astuntzat hartzen direnak.

Arau-hauste arina egiteagatik, zehapen hauetariko bat ezarriko zaio gutxienez entitate edo pertsona arau-hausleari:

–Kirol instalazioetatik aldi baterako kanporatzea, gehienez ere 15 egunerako. Bitarte horretan, instalazioak erabiltzeko eskubide guztiak galduko ditu.

–Ohartarazpen publiko edo pribatua.

–Zehapen ekonomikoa, 150 eta 300 euro artekoa.

–Zehapen-abisua aplikatzea.

–Baldin kalte-galerarik eragin bada instalazio, ekipamendu edo materialetan, arau-hauste arintzat hartutako egitateen ondorioz, zehapenean agin daiteke haren kostua ordaintzeko; azken hori betearazpen-bidetik erreklamatu da.

Arau-hauste eta zehapen arinek 6 hilabetera preskribatuko dute.

28. artikulua. Arau-hauste astunak dira:

1. Beste erabiltzaile baten kontrako liskarrak edo/eta eraso fisikoak edo jendearen intimitatearen aurkako erasoak piztea edo/eta haietan parte hartzea.
2. Kirol instalazioak hondatzen dituzten animaliak eta/edo gaiak sartzea.
3. Instalazioak nahita zikintzea edo hondatzea.
4. Hiru arau-hauste arin egitea.
5. Beste arau-hauste oro, baldin eragiten ahal badio beste erabiltzaileen edo arau-hauslearen beraren segurtasunari.
6. Instalazioko edozein ondasun higigarri edo higiezin hondatzea.
7. Instalazioaren barnean ordena larriki nahastea dakarren egite edo ez-egite oro.

Arau-hauste astuna egiteagatik, zehapen hauetariko bat ezarriko zaio gutxienez entitate edo pertsona arau-hausleari:

–Kirol instalazioetatik denbora baterako kanporatzea, gehienez ere 6 hilabeterako. Bitarte horretan, instalazioak erabiltzeko eskubide guztiak galduko ditu.

–Zehapen ekonomikoa, 300 eta 600 euro artekoa.

–Baldin kalte-galerarik eragin bada instalazio, ekipamendu edo materialetan, arau-hauste astuntzat hartutako egitateen ondorioz, zehapenean agin daiteke haren kostua ordaintzeko; azken hori betearazpen-bidetik erreklamatu da.

Arau-hauste eta zehapen astunek 2 urtera preskribatuko dute.

29. artikulua. Arau-hauste oso astunak dira:

1. Instalazioaren barnean bizikidetza, ordena eta segurtasuna bereziki okertzen dituzten jarduketak.
2. Instalazioen funtzionamendu arrunta galaraztea edo horretarako oztopo larri eta nabarmenak jartzea.
3. Modu larri eta nabarmenean hondatzea ekipamendu, azpiegitura, elementu edo instalazioak.
4. Hiru arau-hauste astun egitea.

Arau-hauste oso astuna egiteagatik, zehapen hauetariko bat ezarriko zaio gutxienez entitate edo pertsona arau-hausleari:

–Kirol instalazioetatik behin betiko kanporatzea, eta instalazioak erabiltzeko eskubide guztiak galtzea.

–Zehapen ekonomikoa, 600 eta 1.000 euro artekoa.

–Kirol instalazioetatik denbora baterako kanporatzea, gehienez ere urtebeterako. Bitarte horretan, instalazioak erabiltzeko eskubide guztiak galduko ditu.

–Baldin kalte-galerarik eragin bada instalazio, ekipamendu edo materialetan, arau-hauste oso astuntzat hartutako egitateen ondorioz, zehapenean agindu daiteke haren kostua ordaintzeko; azken hori betearazpen-bidetik erreklamatu da.

Arau-hauste eta zehapen oso astunak 3 urtera preskribatuko dute

30. artikulua Zehapen prozeduraren ondoriozko erantzukizun administratiboez gainera, arau-hausleari eska dakioke bestelakotutako egoera lehengoratzeko, baita kalte-ordaina pagatzeko ere egindako kalte-galerengatik.

Kalte-ordaina ez bada pagatzen hura kitatzeko jarritako epean, zenbatekoaren arabera jarritako horretan alegia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 101. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

31. artikulua Ematen diren ebazpenen kontra, indarrean dagoen legerian kasu orokorretarako ezarritako errekurtsioak aurkez daitezke.

Errekurtso horiek ebazten diren arte, instalaziora sartzeko eskubidea aldi baterako edo behin betiko kendu zaion erabiltzailea ezin da instalaziora sartu.

32. artikulua. Ordenantza honek aurreikusten ez duen guztian, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz arautuko da zehapen-araubidea: urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legea), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea), apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. titulua (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea) eta Gizalegeko jokaeren sustapenari eta espazio publikoen babesari buruzko udal ordenantza

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek 32 artikulua eta azken xedapen bat ditu, eta indarrean jarriko da Udalak behin betiko onetsi eta bere testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan aurreikusitako epea iraganik.

ERANSKINA

Añezkarko Iturbidea udal pilotalekuaren erregelamendua

1. Pilotalekua irekita egonen da egunero goizeko 9etatik gaueko 10ak arte.

2. Larunbat, igande eta jaiegunetako arratsaldeetan Berriobeitiko Udaleko bizilagunek bakarrik erabil dezakete pilotalekua, salbu eta Berriobeitiko Udaleko alkateak baimen berezia ematen badu.

3. Erreserben kudeaketa:

–Erreserbak eginen dira udal bulegoetan eta/edo online erreserba-zentroan, zer funtzionamendu irizpide ezartzen duen Kirol Zerbitzuak. Udalerrian erroldatutakoek lehentasuna izanen dute.

–Erreserbak eginen dira ordu osoetarako. Erabiltzaile batek ezin izanen ditu erreserbatu bi ordu baino gehiago eguneko.

4. Erreserbatu ez diren orduetan, instalazioan agertzen den lehenak jokatzeko ahal du, baina norbait zain baldin badago ezin du ordubete baino gehiagoratu jokatu.

5. Argien sistemak fitxekin funtzionatzen du. Horiek erosten ahal dira udal bulegoetan eta/edo online ordainketa-pasabidearen bidez. Argiaren orduko prezioa izanen da urtero ezartzen dena Tasen eta prezio publikoen ordenantza fiskalean.

6. Pilotalekua oso handia da, aldi berean bi partida jokatzeko adina, esaterako, frontenisa nagusian eta eskupilota errebotean. Aldi berean, kontrakantxa ere aprobetxa daiteke irristaketa bezalako jarduerak egiteko. Nolanahi ere, sen onak aginduko du, denok disfrutatzeko.

7. Berribeiteko Udalari jakinaraziko zaizkio atzematen diren anomaliak edo kalteak, baita jardueretan era normalean arituta egiten direnak ere.

8. Funtzionamendu arau hauek aginduko dute ondoan dagoen futbol zelaian eta minibasket pistean ere.

9. Gainerako guztian Berribeiteko Udaleko Kirol eremuen eta pilotalekuen erabilera arautzen duen udal ordenantzari jarraituko zaio. Pilotaleku hau arautzen du horrek.

ERANSKINA

Artikako pistaren erregelamendua

1. Artikako udal pista erabiltzeko ordutegia 09:00etatik 22:00etara da, astelehenetik igandera. Debeku da ordutegi horretatik kanpo erabiltzea.

2. Alkateak aldeztu aurretik eta idatziz emandako baimena beharko da ohiko eta noizbehinkako erreserbetarako. Baimena ezin da izan urtebete baino gehiagorako, bidezko diren berritzeak deusetan ukatu gabe.

3. Erreserben kudeaketa:

–Denboraldiaren hasieran, baimena eskatzearekin batera, kirol, kultura eta eskola arloetako entitateek edo klubek idatziz jakinaraziko diote Udalari, betiere hamabost egun lehenagotik, ekitaldi, entrenamendu edo entseguen egutegia, jarduerak koordinatzeko, instalazioak modu arrazoizkoan eta ordenatuan erabiltzearen eta horiek hobeki aprobetxatu eta kontrolatzearen. Bertan zehaztuko dituzte egunak, ordutegia eta egin nahi duten kirol edo jardueren mota.

–Udalak berak edo Artikako Kontzejuak antolatzen dituzten jarduerak lehentasuna izanen dute gainerako jardueren eta entitateen aurrean. Lehentasuna izanen dute, halaber, kirol eta kultura arloetako udalerriko entitate, elkarte edo klubek.

4. Udalaren baimena jasotzen duten jardueren ordutegiak ezarri ondoren, gainerako orduak Berribeiteko bizilagunek libreki erabiltzeko gelditzen dira. Kasu horietan ez dute Udalaren baimena nahitaez eskatu behar.

5. Jende talde bakoitzak gehienez ordubetez erabil dezake, salbu eta Udalak gehiagorako baimentzen badu. Halako jardueren zehatz baterako erabiltzeko aurreikusitako eta baimendutako epea iraganda, erabiltzaileek pista utzi beharko dute, ondotik beste jarduerarik bada edo beste jende talde bat zain badago.

6. Pista zabala da, jardueren batzuk aldi berean egiteko adina. Nolanahi ere, sen onak aginduko du, denok disfrutatzeko.

7. Berribeiteko Udalari jakinaraziko zaizkio atzematen diren anomaliak edo kalteak, baita jardueretan era normalean arituta egiten direnak ere.

8. Instalaziotik ateratzeko aginduko zaie ordenantza honetako arauen aurkako jokabidea duten erabiltzaileei zein ikusleei, edo une horretan instalazioan dauden pertsona edo gauzak errespetatzen ez dituztenei.

9. Gainerako guztian Berribeiteko Udaleko Kirol eremuen eta pilotalekuen erabilera arautzen duen udal ordenantzari jarraituko zaio.